



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC



Urriaren 27an egingo da Laudioko La Milagrosa ikastetxeak antolatutako mendi martxa solidario honen lehen edizioa. Aurten, bertako "Nomeolvides" elkartearen laguntza izango du.

Irteera honen helburu nagusia Laudioko elkartearentzat dirua biltzea da, hainbat urte baitaramatza herriko familia bakoitzaren beharretara egokitutako janari poltsak biltzen, sailkatzen, prestatzen eta ondoren banatzen.

Ibilaldia ikastetxeko patio nagusitik aterako da 10:30ean eta haurtxoen gurdietarako egokia ez den bost kilometro inguruko ibilbideak Santa Maria del Yermo santutegira (Santa Luzia) eramango ditu parte-hartzaileak.

Interesa duten pertsonak tiketa solidarioa ikastetxeko idazkaritzan eskuratu ahal izango dute ekitaldiaren aurreko astean edo ibilaldiaren egunean bertan, urriaren 27an, 09:30etik 10:30era bitartean, irteera lekuan (ikastetxeko patio nagusian).

Tiket solidarioek bost euroko kostua izango dute 18 urtetik gorakoentzat eta bi eurokoa adin txikiko parte-hartzaileentzat, eta motxila bat hornituko dute, eta txokolate beroa eta txistorra-pintxoak izango dituzte doan Santa Luziara iritsi ondoren. Plastikoen erabilera minimizatzeko asmoarekin, parte-hartzaile bakoitzak txokolaterako bere edalontzia eramatea eskertuko da. Era berean, jokoak (herri kirolak) antolatuko dituzte animatuenentzat.

Santa Luziako jarduerak, une oro musikaz girotua egongo direnak, 14:00etan emango dira bukatutzat.

Guraso-elkartea, La Milagrosa Ikastetxeko irakasleekin batera, modu aktiboan ari da elkarlanean ibilaldi solidario hau antolatzen. Ekimenak Gasca, Kukuma, Rakatapla, Izalde-ikus-entzunezkoak eta Laudioko Udalaren laguntza ere badu.

Irteera honek, naturarekin kontaktuan dagoen egun osasuntsu bat familian edo koadrilan gozatzea ere bilatzen du, eta zentroak hainbat elkartasun-kanpainen bidez egiten duen gizarte-lanaren barruan kokatzen da, aurten "gehiago jakin, hobeto zerbitzatu" leloari erantzuten baitiote.

La Milagrosa Ikastetxea

Lezeagabide 2,

01400 Laudio, (Araba)

Tel. 94-6720701

www.lamilagrosalaudio.eus

zuzendaritza@lamilagrosalaudio.eus

